

Pribatutasunari eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko Nazioarteko Estandarrak

Madrileko Ebazpena

**Pribatutasunerako eta Datu Babeserako Agintaritzen Nazioarteko Konferentzia
2009ko azaroaren 5a**

Pribatutasunari eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko Nazioarteko Estandarrak

Madriko Ebazpena

AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkeztu nahi dizuet *Datu Pertsonalen Tratamendua dela-eta Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratua*. Proposamen Bateratuak, 2009ko azaroaren 5ean Madrilen izan zen Pribatutasuna eta Datuak Babesteko Agintaritzen Nazioarteko 31. Konferentziaren aldeko iritzia jaso zuen.

la berrogeita hamar herrialdetako pribatutasunaren bermatzaileek, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren koordinazioaren pean egindako elkarlanaren emaitza izan da testu hau. Bertan eskubide honen babesaren inguruko ikuspegi anitzak islatu nahi izan dira, bost kontinenteetako legediak integratuz. Testu bateratuaren ekarpena dira honako bi balio berritzaile hauek: alde batetik, eskubide hau eratzten duten printzipio eta bermeen bokazio unibertsala azpimarratzen duela; eta bestetik, berretsi egiten duela nazioartean loteslea izan daitekeen dokumentu bat lortzea bideragarria izan daitekeela, dokumentu horren bidez, hobeto babestuz norbanakoen eskubideak mundu globalizatuan, informazioaren nazioarteko transferentziak izango baitira mundu horretako ezaugarririk garrantzitsuenetakoa.

Pribatutasuna gainbegiratzeko eta kontrolatzeko agintaritzok une honetan bertan hartzen dugu gure gain hedatzeko eta sustatzeko lan eskerga, gure herritarrentzat pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesa hobea izan dadin bermatzeko konpromiso sendotik abiatuta.



ARTEMI RALLO LOMBARTE
DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN ZUZENDARIA

Datu Pertsonalen Tratamenduak direla-eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratua

Agiri honen presta lanen garapenari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren web orrira jo dezakezu: www.agpd.es. Web orrian, memorandum bat dago argibideekin, bai eta bestelako informazioa ere.



I. Atala: Xedapen Orokorrak

1. Xedea

Agiri honen xedea da:

- a. Datu pertsonalen babesa dela-eta nazioartean pribatutasuna modu eraginkorrean eta uniformearen babestua izan dadin bermatzeko printzipioen eta eskubideen multzoa finkatzea, eta
- b. Datu pertsonalen nazioarteko fluxuak erraztea, beharrezkoak baitira mundu globalizatuan.

2. Definizioak

Hona hemen dokumentu honetako zenbait kontzepturen definizioak:

- a. "Datu pertsonala": pertsona fisiko identifikatuei buruzko, eta, ahalegin handirik egin beharrik gabe erabil daitezkeen baliabideen bitartez identifikagarriak diren pertsonen buruzko edozein informazio.
- b. "Tratamendua": modu automatizatuan edo ez-automatizatuan datu pertsonalekin egiten den edozein operazio edo operazio multzo, bereziki, datuak biltzea, gordetzea, erabiltzea, erakustea edo ezabatzea.
- c. "Interesduna": tratatu beharreko datu pertsonalen titularra den pertsona fisikoa.
- d. "Arduraduna": pertsona fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua, eta bakarrik edo beste batzuen laguntzarekin tratamenduaren gainean erabakitzen duena.
- e. "Tratamendu-zerbitzuen prestatzailea": pertsona fisikoa edo juridikoa, eta ez da arduraduna, baina arduradunaren kontura datu pertsonalen tratamenduak egiten dituena.

3. Ezarpen eremua

- 1. Agiri hau egin da datu pertsonalen tratamendu guztietan erabiltzeko, tratamendua erabat automatizatua ala zati batean baino ez izan—eta automatizatua ez denean, modu egituratuan egiten bada—, alde batera utzita sektore publikoak ala pribatuak egiten duen.
- 2. Legedi nazional ezargarriek xedatu dezakete ez zaiela Agiri honetako xedapenik aplikatuko pertsona fisikoek haien bizitza pribatuaren eta familia bizitzaren esparruan egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduei.

4. Aparteko neurriak

- 1. Estatuak Agiri honetan finkatutako babes-maila osatzeko aukera izango dute, datu pertsonalen tratamenduak direla-eta pribatutasuna hobeto babestea bermatzen duten

aparteko neurriak finkatuz.

2. Agiri honetako xedapenak datu pertsonalen nazioarteko transferentziak egiteko oinarri egokia eratuko dute, baldin eta transferentziak Agiriaren 15. atalean esandakoaren arabera egiten badira.

5. Salbuespenak

1. Estatuak Agiri honetako 7. ataletik 10. era bitarteko eta 16.enetik 18.era bitarteko ataletan finkatutako xedapenen helmena mugatu ahal izango dute, baldin eta gizarte demokratikoan beharrezkoa bada, nazioaren segurtasuna gordetzeko, segurtasun publikoa babesteko, osasun publikoa zaintzeko, edo besteen eskubideak eta askatasunak babesteko. Edozelan ere, muga horiek berariaz jasota egon beharko dute barneko zuzenbidean, zehatz finkatuta eta interesdunen eskubideak babesteko berme egokiak aurreikusiz.

II. zatia: Oinarrizko printzipioak

6 Leialtasun eta legezkotasun printzipioa

1. Datu pertsonalen tratamenduak leial jokatuz egin beharko dira, ezargarri diren legedi nazionalak eta pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatuz, Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean jasotako helburuak eta printzipioak betez.
2. Interesdunen aurkako diskriminazio bidegabekoak eta ez-zilegiak sortzen dituzten datu pertsonalen tratamenduak tratamendu ez-leialtzat joko dira bereziki.

7 Helburuaren printzipioa

1. Datu pertsonalen tratamenduak arduradunaren helburu zehatzak, esplizituak eta legitimoak betetzeko baino ezingo dira egin.
2. Arduradunak uko egin beharko die datu pertsonalen bilketako helburuekin bateragarriak ez diren tratamenduei, interesdunaren adostasun garbia izan ezean.

8 Proporzionaltasunaren printzipioa

1. Aurreko atalean aurreikusitako helburuak erdiesteko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuekin baino ezingo dira egin datu pertsonalen tratamenduak.
2. Bereziki, arduradunak ahalegina egin beharko du, datu-tratamendua ahalik eta txikiena izan dadin.

9 Kalitatearen printzipioa

1. Arduradunak datu pertsonalak zehatzak direla ziurtatu beharko du beti, eta tratatu behar badira, tratamenduek lortu behar duten helbururako egon beharko ziren bezain eguneratuak eta osatuak daudela ere bai.
2. Arduradunak finkatu behar du zein den tratatutako datu pertsonalak gordetzeko epea, eta ahalik eta laburrena izan beharko da egin beharrekoa egiteko. Beraz, datu pertsonalak beharrezkoak ez badira bilketa zilegi egin zuten helburuak betetzeko, datuak ezereztu egin beharko dira edo anonimo bihurtu.

10 Gardentasunaren printzipioa

1. Ardura duten pertsonak gardentasun politikak izan beharko dituzte egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduekiko.

2. Arduradunak honako informazioa eman beharko die gutxienez interesdunei: arduradunaren identitatea, zertarako egin nahi duen tratamendua, datu pertsonalak nori lagatzea aurreikusten duen eta interesdunak nola balia daitezkeen Agiri honetan aurreikusitako eskubideez. Era berean, datu pertsonal horien tratamendu leiala bermatzeko beharrezkoa den bestelako informazioa ere eman beharko die.

3. Datu pertsonalak zuzenean interesdunarengandik jaso badira, informazio guzti hori datu bilketaren unean bertan eman beharko zaio interesdunari. Ez da beharrezkoa izango informazioa datu-bilketaren unean ematea, lehenagotik ere eman bazaio.

4. Datu pertsonalak ez badira zuzenean interesdunarengandik jaso, informazio guzti hori epe egoki batean eman beharko zaio, eta ikusten bada epe egokian ematea ezinezkoa dela edo arduradunak neurritz kanpoko ahalegina egin behar duela horretarako, beste era bateko neurriak hartzeko aukera egongo da.

5. Interesdunari ematen zaion informazioak ulergarria izan beharko du, eta horretarako, hizkera argia eta garbia erabiliko da. Horrela egin beharko da bereziki, adin txikikoei zuzendutako tratamenduetan.

6. Datu pertsonalak linea bidez biltzen badira, hau da, komunikazio elektronikoen sareen bidez lortu badira, atal honetan ezarritako obligazioak betetzeko, eskuratzen eta identifikatzen errazak diren pribatutasun politikak argitaratu beharko dira, eta aurreko paragrafoetan adierazitako guztia jaso bertan.

11 Erantzukizunaren printzipioa

Hona hemen arduradunaren egin beharrak:

- a) Agiri honetan eta ezarri beharreko legedi nazionalean xedatutako printzipioak eta betebeharrak bete ahal izateko neurriak hartzea, eta
- b) interesdunei eta gainbegiratze-agintaritzei betebehar horiek guztiak betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak eskuratzea. Agiri honetako 23. artikuluan daude xedatuta gainbegiratze-agintaritzen eskumenak eta nola baliatu.

III. zatia: Tratamendua legitimatzea

12 Legitimatzearen printzipio orokorra

1. Arau orokor moduan esan behar da datu pertsonalak beheko kasuetan baino ezin direla tratatu:

- a. Interesdunaren adostasun askea, garbia eta informatua badago.
- b. Erantzukizuna duen pertsonaren legezko interes batek tratamendua arrazoitzen badu, baina, baldin eta interesdunen interes legitimoak, eskubideak edo askatasunak garrantzitsuagoak ez badira.
- c. Tratamendua nahitaezkoa bada erantzukizuna duen pertsonaren eta interesdunaren arteko harreman juridiko baterako edo harremana betetzeko.
- d. Tratamendua nahitaezkoa bada ezargarria den legedi nazionalak arduradunari esleitutako betebeharrak bat betetzeko, edo tratamendua Administrazio Publiko batek egin behar badu bere eskumenez modu legitimoan baliatzeko nahitaezkoa delako.
- e. Ohiz kanpoko salbuespen egoerak badaude eta egoera horiek interesdunaren edo beste pertsona baten osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen badute.

2. Arduradunak zenbait prozedura erraz, azkar eta eraginkor gaitu beharko ditu interesdunek lehendik adierazitako adostasuna ezeztatu ahal izateko. Prozedura horiek ezin izango dute atzerapen edo kostu bidegaberik ekarri, ez eta diru-irabazirik ere arduradunarentzat ere.

13 Datu sentzibleak

1. Datu sentzibletzat joko dira:

a) Interesdunaren esparru intimoenari eragiten diotenak,

b) edo, bidegabe erabiliz gero,

1. diskriminazio bidegabekoak eta ez-zilegiak ekartzen dituztenak, edo
2. interesdunari arrisku handiren bat ekartzen diotenak.

2. Datu sentzibletzat joko dira bereziki, arraza, iritzi politikoak edo sinesmen erlijiosoak edo filosofikoak eta osasunari edo sexualitateari buruzko datuak agerian utzi ditzaizkeen datu pertsonalak. Ezarri beharreko legedi nazionalak datu sentzibleen beste kategoria batzuk ere ezarri ahal izango dituzte, baldin eta aurreko paragrafoan esan diren egoerak gertatzen badira.

3. Ezarri beharreko legedi nazionalak interesdunen eskubideak babesteko behar diren bermeak finkatu beharko dituzte, eta, aldi berean, berme horiek datu sentzibletzat jotzen diren datuak tratatzeko baldintza osagarriak finkatu beharko dituzte.

14 Tratamendu zerbitzuen prestazioa

Arduradunak datu pertsonalen tratamenduak egin ahal izango ditu tratamendu-zerbitzuen prestatzaile bakar baten edo batzuen bidez. Baina horretarako:

- a. Tratamendu-zerbitzuaren prestatzaileak gutxienez Agiri honetan eta ezargarria den legedi nazionalan aurreikusitako babes-maila bermatzen duela zaindu beharko du, eta
- b. bien arteko harreman juridikoa antolatzeko kontratu bat edo bestelako tresna juridikoren bat eratu beharko du, harremana eta harremanaren helmena eta edukia egiaztatu ahal izateko. Era berean, bertan jasoko dira tratamendu-zerbitzuen prestatzaileak goiko berme horiek betetzeko hartzen duen konpromisoa, eta datu pertsonalak, arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatuko direla ziurtatu.

15. Nazioarteko transferentziak

1. Arau oroko moduan esan behar da datu pertsonalen nazioarteko transferentziak egin ahal izango direla, baldin eta datu transferentziaren hartzailea den Estatuak Agiri honetan aurreikusitako babes maila eskaintzen badu gutxienez.
2. Agiri honetan jasota dagoen segurtasun-maila eskaintzen ez duten Estatuetera ere egin ahal izango dira datu pertsonalen transferentziak, baldin eta datu horiek transferitu nahi dituenak bermatzen badu transferentzia-hartzaileak babes-maila hori eskainiko duela. Hori bermatzeko, nahikoa izango da klausula kontraktual egokiak egotea. Bereziki, transferentzia erakunde edo talde multinazionalen baitan egiten bada, bermea izan daiteke barruko pribatutasun arauak izatea eta arau horiek betetzea loteslea izatea.
3. Era berean, transferentzia interesdunaren onurarako den harreman kontraktual baten esparruan beharrezkoa bada edo interesdunarentzat edo beste pertsona batentzat berebizikoa den interes bat edo garrantzi handiko interes publiko bat babesteko legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa bada, datu pertsonalak transferitu nahi dituenari aplikatu beharreko legedi nazionalak baimena eman ahal izango du Agiri honetan aurreikusitako babes-maila eskaintzen ez duten Estatuetera datu pertsonalak transferitu ahal izateko.
4. Ezarri beharreko legedi nazionalak bere jurisdikzioan sortzen diren datu pertsonalen transferentzia guztiak edo batzuk baimentzeko —beti ere transferentziak gauzatu aurretik— eskumena aitortu ahal izango die 23. atalean aurreikusitako gainbegiratze-agintaritzeari. Edozelan ere, datu pertsonalen nazioarteko transferentzia bat egin nahi duen edonork egiaztatu beharko du transferentziak bete egiten dituela Agiri honetan ezarritako bermeak, eta bereziki egiaztatu beharko du gainbegiratze-agintaritzek halakorik egiteko agintzen badiote, 23.2 atalean aurreikusitako eskumenez baliatzean.

IV. zatia: Interesdunaren eskubideak

16 Atzipen eskubidea

1. Interesdunak eskubidea izango du arduraren pertsonari honakoak eskatzeko, halakorik eskatu nahi badiu: tratatu beharreko datu pertsonalen gaineko informazioa, datuen jatorriari buruzkoa, dagokien tratamenduen helburuei buruzkoa eta datu horiek komunikatuko zaizkien edo komunikatu nahi zaizkien hartzaileei edo hartzaileen kategoriei buruzkoa.
2. Interesdunari ematen zaion informazioa, edozein dela ere, era ulergarrian emango zaio, eta horretarako, hizkera argia eta garbia erabiliko da.
3. Ezargarria den legedi nazionalak mugak jarri ahal izango dizkio eskubide hauek behin eta berriz erabiltzeko aukerari, interesdunak eskabidean interes legitimoa duela jasota uzten duen kasuetan izan ezik; izan ere, eskubideaz behin eta berriz baliatuz gero, arduraren pertsonak eskabide piloari erantzun beharko bailioke denbora epe laburrean.

17 Zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea

1. Interesdunak eskubidea izango du arduradunari eskatzeko berari buruz dituen datuak zuzentzeko edo ezerezteko, baldin eta oso-osoak, zehatzak eta beharrezkoak ez badira edo gehiegizkoak badira.
2. Egoki ikusten denean, arduradunak zuzendu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak, eskatutakoa betez. Gainera, datu horiek hirugarren bati komunikatu bazaizkio, datuak ezabatu edo ezereztu direla jakinarazi beharko zaio hirugarren horri, nor den jakinez gero.
3. Datu pertsonalak ezin izango dira ezereztu, ezargarria den legedi nazionalak edo, halakorik gertatuz gero, arduradunaren eta interesdunaren arteko harreman kontraktualek arduradunari esleitutako betebeharrak betetzeko gorde behar badira.

18 Aurka egiteko eskubidea

1. Interesdunak bere datu pertsonalen tratamenduari aurka egin ahal izango dio, baldin eta arrazoi legitimoren bat eratoritzen bada bere egoera pertsonal zehatzetik.
2. Ezin izango da aurka egiteko eskubiderik erabili, tratamendua nahitaezkoa bada legedi nazional ezargarriak arduradunari esleitutako betebeharrak betetzeko.
3. Interesdunek ondorio juridikoak dakartzaten erabakiei ere aurka egin diezaiekete, baldin eta datu pertsonalen tratamendu automatizatuetan bakar-bakarrik oinarrituta badaude, honako kasuetan izan ezik: interesdunak berak berariaz eskatu badu erabakia edo erabakia nahitaezkoa bada arduradunaren eta interesdunaren arteko harreman juridikoa ezartzeko, mantentzeko edo betetzeko. Azken kasu honetan interesdunak aukera izan beharko du bere ikuspuntua emateko, bere eskubide edo interesa defendatu ahal izateko.

19 Nola baliatu eskubide horiez

1. Agiri honetako 16., 17. eta 18. ataletan aurreikusitako eskubideak honela erabili ahal izango dira:

- a. Interesdunak berak zuzenean. Horretarako era egokian egiaztatu beharko du bere identitatea arduradunaren aurrean.
- b. Ordezkari baten bitartez. Ordezkariak era egokian egiaztatu beharko du ordezkaria dela arduradunaren aurrean.

2. Arduradunak zenbait prozedura ezarri beharko ditu interesdunek 16., 17. eta 18. ataletan aurreikusitako eskubideez erraz, azkar eta modu eraginkorrean balia daitezzen. Prozedura horiek ezin izango dute atzerapen edo kostu bidegaberik ekarri, ez eta diru-irabazik ere arduradunarentzat.

3. Arduradunak antzematen badu, legedi nazional ezargarria kontuan hartuta, Agiri honetan aurreikusitako eskubideez baliatzea ez dela bidezkoa, behar bezala jakinarazi beharko dio interesdunari zergatik uste duen hori.

V. atala: Segurtasuna

20 Segurtasun neurriak

1. Bai arduradunak bai tratamendu-zerbitzuen prestatzaileek, babestu egin beharko dituzte tratatzen dituzten datu pertsonalak, eta horretarako, unean-unean datuen osotasuna, konfidentziasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko egokien ikusten dituzten neurri teknikoak eta antolaketako neurriak hartuko dituzte. Zein neurri hartu erabakitzeko, honakoak hartuko dira kontuan: arriskua, arriskuak interesdunengan izan ditzakeen balizko ondorioak, datu pertsonalak sentsibleak ote diren, tratamendua zein testuingurutan egiten den eta teknikaren egoera, bai eta ezargarria den legedi nazionalan ezarritako betebeharrak ere.

2. Tratamenduaren fase batean nahiz bestean parte hartzen dutenek datu pertsonalen tratamenduaren faseetako edozeinetan gertatzen diren segurtasun urraketan berri eman beharko diete interesdunei, segurtasun urraketa horiek haien ondare eskubideei edo bestelako eskubideei kalte handia egin baldin badiezaieke. Segurtasun urraketak konpontzeko hartzen diren neurrien berri ere eman beharko diete. Informazio guzti hori aurretiaz eman beharko zaie, interesdunek haien eskubideen alde egiteko aukera izan dezaten.

21 Konfidentziasun betebeharra

Arduradunak eta datu pertsonalen tratamenduaren faseetako edozeinetan parte hartzen dutenek datuen konfidentziasuna errespetatu beharko dute. Betebehar horrek bere horretan iraungo du, nahiz eta interesdunarekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan.

VI. zatia: Betetzea eta gainbegiratzea

22 Neurri proaktiboak

Estatuek ahalegina egingo dute, bakoitzak bere zuzenbidea erabilita, tratamenduaren faseetako edozeinetan parte hartzen dutenek, datu-babesaren arloan ezarri beharreko legedia hobeto betetzeko neurriak finkatu ditzaten. Neurri horien artean honako hauek egon daitezke:

- a. Arau-haustea prebenitzeko eta antzemateko prozedurak ezartzea. Prozedura horien oinarrian informazioaren segurtasuna gobernatzeko eta/edo kudeatzeko eredu estandarizatuak egon daitezke.
- b. Pribatutasuneko edo datu-babeseko ofizial bat edo batzuk izendatzea. Ofizial horiek gainbegiratze-eginkizuna behar bezala burutzeko adina kualifikazio, baliabide eta gaitasun izan beharko dute.
- c. Datuen tratamendua dela-eta pribatutasuna babesteko esparruan ezargarria den legedia hobeto ezagutzeko, aldi behin kontzientziazio, hezkuntza eta prestakuntza programak egitea erakundeko kideentzat, bai eta erakundeak ezarritako prozedurak hobeto ezagutzeko ere.
- d. Auditoria gardenak egitea aldi behin datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasuna babesteko esparruan ezargarria den legedia betetzen dela egiaztatze, bai eta erakundeak ezarritako prozedurak betetzen direla egiaztatze ere. Auditoriak egiteaz subjektu kualifikatuak eta, aukeran, independienteak arduratuko dira.
- e. Datu pertsonalak tratatzeko informazio-sistemak eta/edo informazio-teknologiak egokitzea datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasuna babesteko esparruan ezargarria den legedira, batez ere, sistema eta/edo teknologia horien espezifikazio teknikoaren eta garapena eta inplementazioaren gaineko erabakiak hartzean.
- f. Pribatutasun-inpaktuari buruzko azterketak gauzatzeko, datu pertsonalak tratatzeko informazio sistema eta/edo teknologia berriak inplementatu aurretik, bai eta datu pertsonalen tratamenduen modalitate berriak egin aurretik edo lehendik dauden tratamenduetan aldaketa garrantzitsuak egin aurretik ere.
- g. Autorregulazio akordioetara atxikitzea. Akordioak betetzea loteslea izan beharko da eta akordioek datu pertsonalen babesa betetzeari eta betetze-graduari buruzko eraginkortasun maila neurtzeko elementuak izan beharko dituzte, bai eta neurri eraginkorrak ere ez-betetzeak daudenerako.
- h. Kontingentzia planak inplementatzea, datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasuna babesteko esparruan ezargarria den legedia ez dela betetzen antzemanaz gero, aplikatu ahal izateko. Plan horietan honakoak adierazi beharko dira gutxienez: arau-haustea zergatik gertatu den, arau-haustearen helmena; arau-haustearen ondorio negatiboen deskribapena eta berriro halakorik gerta ez dadin hartu beharreko neurriak.

23 Gainbegiratzea

1. Estatu bakoitzak gainbegiratze-agintaritza bat edo gehiago izan beharko du, eta estatu

bakoitzeko zuzenbidearen arabera, Agiri honetan ezarritako printzipioak betetzen direla gainbegiratzeko ardura izango dute.

2. Gainbegiratze-agintaritza horiek inpartzialak eta independienteak izan beharko dute eta interesdunek aurkeztu dituzten erreklamazioak ulertzeko eta datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasunaren babesaren esparruko legedi nazionala betetzen dela bermatzeko egin beharreko ikerketa eta esku hartze guztiak egin ahal izateko moduko kualifikazio teknikoak, gaitasunak eta baliabide egokiak izan beharko dituzte.

3. Edozelan ere, eta alde batera utzi gabe gainbegiratze-agintaritzei aurkeztu ahal zaizkien administrazio-errekurtsoak —agintaritzen erabakien jurisdikzioaren kontrola barne—, interesdunak jurisdikzio-bidera jotzeko aukera izango du eta han bere eskubideak aldarrikatzeko, beti ere legedi nazional ezargarrin finkatutako aurreikuspenen arabera.

24 Elkarlana eta koordinazioa

1. Aurreko atalean aurreikusitako gainbegiratze-agintaritzek ahalegina egingo dute elkarlanean aritzeko datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasunaren babesa uniformeagoa izan dadin, bai nazioan bertan bai nazioartean. Elkarlana bideratzeko, Estatuak prest egon beharko dute haien lurraldeetan gainbegiratze-agintaritza eskumendunak identifikatzeko.

2. Agintaritza horiek ahalegin berezia egin beharko dute:

- a. Baliokoak diren azterketak, ikerketa teknikak, komunikazio eta erregulazio estrategiak eta bestelako informazio baliagarria elkarrekin partekatzea, agintaritzek haien eginkizunak ahalik eta modu eraginkorrean gauzatu ditzaten, bereziki, beste gainbegiratze-agintaritzaren batek laguntza-eske bat egiten duenean ikerketa edo esku-hartze baten esparruan.
- b. Ikerketa edo esku-hartze koordinatuak egitea, bai nazioan bai nazioartean, gainbegiratze-agintaritza baten edo gehiagoren interesak bat egiten duten gaitan.
- c. Jarrera bateratuak hartzea edo gainbegiratze-agintaritzetako pertsonalaren kualifikazio teknikoak hobetzea ahalbideratzen duten elkarteetan, lan taldeetan, foroetan eta mintegi, lantegi nahiz ikastaroetan parte hartzea.
- d. Elkarlanean aritzean trukutzen den informazioaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzea, konfidentzialtasuna informazioaren arabera izanik.

2 Estatuak lurraldeko, nazioko edo nazioarteko gainbegiratze-agintaritzen arteko lankidetzak hitzarmenak sortzea bultzatuko dute, atal honetan xedatutakoa hobeto betetze aldera.

25 Erantzukizuna

1. Datu pertsonalen tratamenduren batek datu babesaren arloan ezargarririk den legedia hautsi eta horren ondorioz, interesdunen bati kalte morala eta/edo materialak eraginez gero, ardura duen pertsonak izango du kalte horien gaineko erantzukizuna, eta hala izango da kaltea berari ezin zaiola leporatu frogatu ezean. Hala ere, ardura duen pertsonak aukera izango du tratamenduaren faseetako edozeinetan parte hartzen duten tratamendu-zerbitzuen prestatzaileen aurkako ekintzaren bat hasteko.

2. Estatuek neurriak hartu beharko dituzte interesdunentzat erraza izan dadin lehen aipatutako kalteentzako kalte-ordaina jasotzeko prozedura judizialetera edo administrazio prozeduretara jotzea.
3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako erantzukizunak berdin jarraituko du, nahiz eta datu pertsonalen tratamendua dela-eta pribatutasuna eta datuak babesteko esparruko legedi nazionala urratzeagatik zehapen penalak, zibilak edo administratiboak aurreikusita egon.
4. Atal honetan jasotako erantzukizuna eta zehapenak ezartzerakoan, Agiri honetako 22. artikuluan aurreikusitakoak bezalako neurri proaktiboak hartzen direla kontuan hartuko da.

Nazioarteko Pribatutasun-Estandarrei buruzko Ebazpena

NAZIOARTEKO PRIBATUTASUN-ESTANDARREI BURUZKO EBAZPENA

PROPOSAMENAREN EGILEAK:

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia
Datuak Babesteko eta Gardentasuneko Komisario Federala (Suitza)
Datuak Babesteko Europako Gainbegiralea
Informatikaren eta Askatasunen Batzorde Nazionala (Frantzia)
Irlandako Datuak Babesteko Komisarioa
Pribatutasuneko Kanadako Komisarioaren Bulegoa
Datu Pertsonalak Babesteko Bulegoa (Txekiar Errepublika)
Datuak Babesteko Komisario Federala (Alemania)
Datu Pertsonalak Babesteko Bermatzailea (Italia)
Datuak Babesteko Holandako Agintaritza
Pribatutasuneko Zeelanda Berriko Komisarioa
Informazioaren Komisarioaren Bulegoa (Erresuma Batua)

PROPOSAMENEAN PARTE HARTU DUTE:

Datuak Babesteko Andorrako Agentzia

Datuak Babesteko Kataluniako Agentzia

Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentzia

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Datuak Babesteko Man Uharteko Gainbegiratzaillearen Bulegoa

Datuak Babesteko Estoniako Ikuskaritza

Datuak Babesteko Estatuko Ikuskaritza (Lituania)

Datuak Babesteko Berlineko Komisarioa (Alemania)

Datuak Babesteko Schleswig-Holsteingo Komisarioa (Alemania)

Datu Pertsonalak Babesteko Zuzendari Nazionala (Argentina)

Datuak Babesteko Komisarioa (Malta)

Informatikaren eta Askatasunen Batzordea (Burkina-Faso)

Datu Pertsonalak Babesteko Komisarioa (Zipre)

Datuak Babesteko Defendatzailea (Finlandia)

Informazioaren Komisarioa (Eslovenia)

Datuak Babesteko Greziako Agintaritza

Hona hemen kontuan hartu beharrekoak:

Datu Babeserako eta Pribatutasunerako Agintaritzen Nazioarteko 30. Konferentziak honako Ebazpena onartu zuen aho batez Estrasburgon: Mugarik gabeko munduan pribatutasuna babesteko premia larriari buruzko eta datu pertsonalen babesari eta pribatutasunari buruzko nazioarteko ereduak finkatzeko proposamen komun bat egiteari buruzko ebazpena.

Ebazpen horren bidez, lan talde bat eratzea xedatu zen, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari esleitu zitzaion lan taldea koordinatzeko ardura, erakunde horrek antolatu behar zuelako Nazioarteko 31. Konferentzia, eta interesa zuten datuak babesteko agintaritza guztiek parte hartzeko aukera eman zen. Lan taldearen xedea zen Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratu bat egitea.

Agindu horrekin bat eginez, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak lan talde bat eratu zuen, Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratu bat egiteko lanak sustatuz eta koordinatuz.

Lan taldeak Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratua idatzi zuen, eta hori egiteko, nazioarteko helmena duten lege testuetan, jarraibideetan edo gomendioetan berdinak diren printzipioak hartu zituen abiaburutzat, beti ere, kontuan hartuta lege testu, jarraibide edo gomendio horien ezarpen eremu geografiko, ekonomiko edo legetan adostasun zabala egon dela horien inguruan.

Proposamen bateratu hau egiteko, onartu behar izan dugu printzipio eta ikuspuntu komun guzti horiek osagai baliotsuak direla informazio pertsonala eta pribatutasuna babesteko esparruan, eta printzipio eta irizpide komun horiek hedatzeko asmoarekin egin dugu, horretarako, aplikagarriak izan daitezkeen konponbideak eta berariazko aurreikuspenak gehituz, alde batera utzita pribatutasuna eta datuak babesteko ereduaren artean daude desberdintasunak.

Hori guzti hori kontuan hartuta, Konferentziak honakoa ebatzi du:

1. Atseginez hartzen duela Datu Pertsonalen Tratamenduak direla-eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratua. Proposamena Ebazpenari atxikita dago I. Eranskin gisa. Proposamen bateratuak argi uzten du estandarrak bideragarriak direla, eta beste urrats bat direla, une egokia heltzen denean, nazioarteko tresna lotesle bat gauzatzeko bidean.

2. Adierazten du pribatutasuna eta datuak babesteko sistema juridiko orok egin beharko lukeela ahalegina Proposamen Bateratuak eskaintzen dituen printzipio, eskubide, betebeharrak eta prozedura multzoa erdiesteko. Horrela, arlo publikoan nahiz arlo pribatuan egiten diren datu-tratamenduak egiteko, ikuspegi uniformeago bat erabiliko litzateke nazioartean, eta honela jokatu.

a. legea betez, zintzo eta neurritz jokatzuz, helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

b. politika gardenetan oinarrituta, interesdunei behar bezala informatuz eta haien aurkako bidegabeko diskriminaziorik egin gabe.

c. datuen zehaztasuna, konfidentzialtasuna eta segurtasuna, tratamenduaren legitimitasuna eta ukituen atzitzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea nahiz tratamenduei aurka egiteko eskubidea bermatuz.

d. erantzukizunaren printzipioa aplikatuz, kalte-ordainen erantzukizuna barne hartuta, nahiz eta tratamendu-operazioak arduradunaren kontura diharduten zerbitzu-prestatzaileen bidez gauzatu.

e. berme egokiagoak eskainiz datuak sentsibleak direnean.

f. nazioartean transferitutako datu pertsonalek ere estandarren multzoan aurreikusitako babes-maila bera dutela bermatuz.

g. tratamendua gainbegiratze-agintaritzen zaintzapean jarriz. Gainbegiratze-agintaritzek independenteak eta inpartzialak izan beharko dute, botere eta baliabide egokiak izan beharko dituzte eta elkarren arteko lankidetzeta betebeharraren menpe egongo dira.

h. neurri proaktiboan esparru berri eta moderno batean jardunez. Neurri proaktibo horien xedea izango da arau-hausteei aurrea hartzea eta arau-hausteak antzematea, eta pribatutasuneko ofizialen izendapenean eta auditoria eraginkorretan eta pribatutasun-inpaktuen balioztapenetan oinarrituko dira.

3. Nazioarteko konferentzian kreditatutako pribatutasuna eta datuak babesteko agintaritzei eskatzea ahalik eta zabalkunderik handiena emateko Datu Pertsonalen Tratamenduak direla-eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratuari.

4. Nazioarteko 31. eta 32. Konferentziak antolatzeke arduraren agintaritzei agintzea Harremanetarako Talde bat eratzeke. Taldeko kide pribatutasuna eta datuak babesteko agintaritze oro izan daiteke, nahi badu, eta taldeak honako eginkizunak izango ditu:

a. Proposamen Bateratua sustatzea eta zabalkundea egitea erakunde pribatuen, adituen eta erakunde publikoen artean, nazionalak nahiz nazioartekoak izan, Proposamen

Bateratuaren bitartez, hitzarmen unibertsal lotesle bat erdiesteko oinarriak jarritz eta Proposamena bereziki sustatuz eta hedatuz, Montreux-eko Adierazpenean agertzen diren erakunde eta organizazioen artean;

b. eta aztertzea eta azaltzea nola erabil daitekeen Proposamen Bateratua pribatutasuna eta datu babesari buruzko nazioarteko lankidetzaren eta ulerkuntzaren garapenerako oinarri gisa, bereziki, datu pertsonalen nazioarteko transferentziak baimentzeko testuinguruan. Transferentziak egiteko, norbanakoen eskubideak eta askatasunak babestuko dituzten erak erabiliko dira.

5. Harremanetarako Taldeari honakoak eskatzea:

a. bere lana Zuzendaritza Taldearekin koordinatu dezala nazioarteko erakundeen bileretako ordezkariak direla-eta, eta

b. aurrerapen garrantzitsuak daudenean, horien berri eman diezaiola Nazioarteko 32. Konferentziari, hartara, ebazpen honetako gaiari etengabeko arreta ematen zaiola bermatzeko.

Azalpen oharra

Pribatutasuna eta Datuak Babesteko Nazioarteko 30. Konferentziak, mugarik gabeko munduan pribatutasuna babesteko premiazko beharrari buruzko eta pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteari buruzko nazioarteko estandarrak finkatzeko proposamen bateratu bat lortzeko premiari buruzko Ebazpena onartu zuen. Ebazpena datuak babesteko Suitzako eta Espainiako agintaritzek aurkeztu zuten, beste hogeitaz agintaritzen babesarekin.

Ebazpen honen bidez, Konferentziak gogorarazten du azken hamar urteotan hartutako zenbait adierazpen eta hitzarmenen xedea dela pribatutasuna eta datuak babesteko eskubidearen izaera unibertsala sendotzea, eta, aldi berean, dei egiten du datu pertsonalen tratamenduak direla-eta pertsonak babesteko hitzarmen unibertsal bat garatzeko.

Gainera, Ebazpenak dio Nazioarteko Konferentziak uste duela pribatutasuna eta datuak babesteko eskubidea pertsonak duten oinarrizko eskubide bat dela, alde batera utzita pertsonen nazionalitatea edo egoitza. Era berean, Ebazpenak egiaztatu du pribatutasunarekiko errespetuaren esparruan eta datu-babesaren eremuan munduan oraindik dauden desberdintasunek —Estatu askok ez dutelako oraindik lege egokirik onartu— datu pertsonalen trukaketa kaltetzeaz gain, traba direla datu babesaren eraginkor eta globala abian jarri ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Ebazpenak Konferentziaren uste sendo baten berri ematen du, hau da, eskubide hauek onar daitezten, ezinbestekoa dela legegintza-tresna unibertsal eta lotesle bat hartzea, eta tresna horren bidez, orain arteko tresnetan jasota zeuden pribatutasuna errespetatzeari eta datu babesari buruzko printzipio komunak erabili, ezarri eta osatzeaz gain, datuak babesteko agintaritzen nazioarteko lankidetzaren sendotzea.

Zentzu horretan, Ebazpenak nabarmendu nahi du Nazioarteko Konferentziak emandako laguntza Europako Kontseiluari, pribatutasuna eta datuak babesteko oinarrizko eskubideak sustatzeko, eta estatu guztiak gonbidatu nahi ditu, erakundeko kide izan ala ez izan, datu pertsonalen tratamendu automatizatua dela-eta pertsonak babesteko Hitzarmena eta hitzarmenaren protokolo gehigarria berretsi dezaten. Era berean, Ebazpenak berretsi egiten du APEC-Asia eta Ozeano Bareko Elkar laguntzarako Foroak eta ELGA-Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak eta eskualdeko eta nazioarteko foroak, pribatutasunerako eta datu-babeserako nazioarteko estandar hobeak sustatzen dituzten tresna eraginkorrak garatzeko asmoz egindako ekintzei ematen dien babesaren.

Ebazpen horren bidez, lan talde bat eratzea xedatu zen, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari esleitu zitzaion lan taldea koordinatzeko ardura, erakunde hori zelako Nazioarteko 31. Konferentziaren antolatzailea, eta interesa zuten datuak babesteko agintaritzaren guztiek parte hartzeko aukera eman zen. Lan taldearen xedea zen Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratu bat egitea.

Guzti horietaz gain, Ebazpenak Proposamen Bateratua egiteko prozesuaren ardatz izan behar diren irizpideen zerrenda bat ere badu; izan ere, Proposamena egiteko, ahalik eta erakunde eta entitate pribatu eta publiko gehienaren parte hartzea sustatu behar izan baita, ahal denik eta adostasun instituzional eta sozialik zabalena erdiesteko.

Agindu horrekin bat, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, Ebazpenak aipatzen duen Lan Taldea eratu zuen eta Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratua egiteko lanak sustatu eta koordinatu zituen.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak Lan Taldean parte hartzeko gonbidapena egin zien Nazioarteko Konferentzian kreditatutako Pribatutasuna eta Datuak Babesteko agintaritzak guztiei. II. Eranskinean jasota dauden agintaritzek Lan Taldean parte hartzeko borondatea agertu zuten, eta, ondorioz, taldean sartu ziren.

Lan Taldea 2009ko urtarrilean eta ekainean bildu zen. Lehenengo bileran Proposamen Bateratua idazteko metodologia eta edukiaren helmen materiala adostu zituzten. Bigarren bileran, ordea, proposamenaren zirriborroaren bertsio aurreratu baten gainean eztabaidatu zen, gero Nazioarteko 31. Konferentziara bidaltzeko.

Estrasburgoko Ebazpenak adierazitako eta Lan Taldeak adostutako irizpideak eta metodologia ikusirik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak lan eskerga egin du laneko dokumentuak idazten, bertan jasoz Pribatutasuna eta Datuak Babesteko agintaritzek eta datu babesarekin zerikusia duten beste erakunde publiko batzuk egindako ekarpenak, bai eta enpresetako zenbait adituk, esparru juridikoko hainbat profesionalak, mundu akademikokoek eta nazioarteko zenbait erakundek eta gobernuz kanpoko beste hainbat erakundek egindakoak ere.

Lan taldeak Datu Pertsonalen Tratamendua dela-eta, Datu Pertsonalak eta Pribatutasuna Babesteko Nazioarteko Estandarrak Idazteko Proposamen Bateratu idatzi zuen, eta hori egiteko, nazioarteko helmena duten lege testuetan, jarraibideetan edo gomendioetan berdinak diren printzipioak hartu ziren abiaburutzat, beti ere, kontuan hartuta lege testu, jarraibide edo gomendio horien ezarpeneko eremu geografiko, ekonomiko edo legeletan adostasun zabala egon dela horien inguruan.

Proposamen Bateratua egiteko, onartu behar izan da printzipio eta ikuspegi komun horiek, pribatutasunaren eta informazio pertsonalaren babes eta hobekuntzaren esparrura balioa duten osagaiak dakartzatela, gerora berriazko konponbide eta xedapenen bidez handiagotzeko asmoarekin; pribatutasuna eta datuak babesteko esparruan dauden eredu ezberdinen artean dauden desberdintasunak alde batera utzita aplikatu ahal izango direla pentsatuz.

- LAN TALDEA ERATU ZUTEN AGINTARITZAK: DATUAK BABESTEKO KOMISARIO FEDERALA (Alemania), INFORMAZIO ASKATASUNERAKO ETA DATUAK BABESTEKO BERLINGO KOMISARIOA (Alemania), DATUAK BABESTEKO SCHLESWIG-HOLSTEINGO KOMISARIOA (Alemania), DATUAK BABESTEKO BATZORDEA (Austria), PRIBATUTASUNA BABESTEKO BATZORDEA (Belgika), INFORMATIKAREN ETA ASKATASUNEN BATZORDEA (Burkina-Faso), PRIBATUTASUNEN KOMISARIOA (Kanada), INFORMAZIO ATZIPENEN KOMISARIOA (Kanada), DATUAK BABESTEKO EUROPAN GAINBEGIRALEA, INFORMAZIOAREN KOMISARIOA (Eslovenia), DATUAK BABESTEKO ESPAINIARIKO AGENTZIA (Espainia), DATUAK BABESTEKO KATALUNIARIKO AGENTZIA (Espainia), DATUAK BABESTEKO MADRILEKO ERKIDEGOKO AGENTZIA (Espainia), DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA (Espainia), INFORMATIKAREN ETA ASKATASUNEN BATZORDE NAZIONALA (Frantzia), DATUAK BABESTEKO PRIBATUTASUNEN KOMISARIOA (Hong Kong), DATUAK BABESTEKO ITALIARIKO KOMISARIOA (Italia), PRIBATUTASUNEN KOMISARIOA (Zeelanda Berria), DATUAK BABESTEKO BATZORDEA (Herbehereak), DATUAK BABESTEKO BATZORDE NAZIONALA (Portugal), INFORMAZIOAREN KOMISARIOA (Erresuma Batua), DATU PERTSONALAK BABESTEKO BULEGOA (Txekiar Errepublika), DATUAK BABESTEKO KOMISARIO FEDERALA (Suitza).

